


"Jirafa"



**Gaur jirafa
deskribatuko dugu.
Jirafak Afrikako
Sabanen bizi dira eta
munduko
animaliarik altuenak
dira.**

**Jirafek kolore horia eta marroia
daukate, lepoa eta hankak oso luzeak
dituzte eta mihia beltza eta luze-luzea.
Zuhaitzetako hostoak jaten dituzte.
Hirurogeita bost kilo egun batean.
Jirafek oso lo gutxi egiten dute,
egunean 20 minutu bakarrik.
Jirafak beti taldeka ibiltzen dira.**

1. Zein da testu honen gaia?

- ☐ Jirafak jaten duena.
- ☐ Jirafaren ezaugarriak.
- ☐ Animalien bizitza.

2. Non bizi dira jirafak?

- ☐ Basamortuan.
- ☐ Oihanean.
- ☐ Sabanan.
- ☐ Basoan.

3. Jirafak hostoak jaten ditu. Zein motatako animalia da?

- ☐ Haragijalea.
- ☐ Belarjalea.

4. Jirafek, zenbat denbora egiten dute lo?

..... egiten dute lo.

5. Non aurki dezakegu honelako testu bat?

- ☐ Egunkari batean
- ☐ Animalien liburu batean
- ☐ Ipuin batean

